



ARRATE GARMENDIA

40 urte Eibarko Cáritas-en arduradun

konbinatu



graduatuak
egualitate graduatuak

97€



Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan




RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Antonio Murillo
Ainhoa Zulueta
Susana Sierra
Maitane G. Iñiguez
DOKTOREAK

Invisalign ortodontzia ikusezina



**DESKONTU
HANDIAK**

Uztailaren 30era arte

Ortodontzia estetikoa eta ikusezina

ORDUTEGIA: Asteleheneretik ostegunera: 10-14 eta 16-20h / Ostiraletan: 10-14 eta 15-19h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com



Arrateko Bertso-Afaria

Irailak 7 barixakua 21.00etan

SEBASTIANLIZASO ANDONIEGAÑA BEÑATGAZTELUMENDI IGORELORTZA

SARRERAK BAZKIDEENTZAT salgai 28 eurotan
uztailaren 9tik 20ra ...eta kitto!n (bazkide bakoitzak sarrera bana).

BAZKIDE EZ DIRENENTZAT: uztailaren 23tik aurrera
Sagar Bitza, Kultu eta Kantabrian. 29 euro.



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maidar Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*) ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

IRUTXUR.- Txokoa, hiru planok egiten duten angelua. "Irutxur baten ezkutau zan, etsaieri igesik". Iruzurra, traizioa. "Gaurko jokuan, irutxurra bis-bistan egon da".

IRUTXUR EGIN.- Traizio egin, engainatu. "Bide ardixan, illunak eta bakardadiak lagunduta, irutxur egin zestan".

IRUTXUR JOKATU.- Iruzur egin, traizio egin. "Lehenengo egunetik, irutxur jokatu eben urdiñak".

IRUTXURLARI.- Iruzur egiten duena. Gaztelerazko 'tramposo'.

ESKUTITZAK

— OHARRA —

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxienezko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailaz: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Ale honen atzetik beste bi kaleratuko ditu abuztuko oporrak hartu aurretik, hau da, hilaren 13koa eta 20koa izango dira azkenak. Edozein informazio edo zorian agur gurean kaleratu nahi baduzue, izan itzazue kontuan data horiek.

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Internet-ek ez du informazioa hautatzen, Wikipediak zerbitzuaren aurkakoa eskaintzen baitio internetari. Mundu basati eta arrisksua da oraindik Internet, inongo hierarkiarik gabe sortzen duena. Sarean harat-honat dabilzan hainbat eta hainbat gauzen multzoa informazio eza baino askoz kaltegarriagoa da. Informazio gehiegi izateak amnesia dakar berarekin; hainbeste informazio kalterako besterik ez delako. Eta, ikasten duguna gogoratzen ez dugunean, gero eta gertuago gaude animalien-gandik. Jakiteko moztu eta hautatu egin behar da"

(Umberto Eco, semiologia eta idazlea)

"Barkamena ez da aspaldiko kontzeptua: Grezian eta Erroman ez zen existitzen; han erukitasuna erabiltzen zuten. Senekak berak zioen jakintsuak ez zuela barkamenik eman behar; norbaitek zigorrik merezi badu zigor hori jaso behar duelako. Barkamena ez da naturala gizakiongan; gehiago gaude amorrurako prestatuta. Baina amorrario horrek ez gaitu inora eramaten, eta horregatik diot inteligentziak sortutako onena dela etika, ontasuna. Pertsona ona inoiz ez delako tontoa edo tuntu. Zuzenbidea ere horretarako sortu dugu, oihanezik ihes egiteko"


(Jose Antonio Marina, filosofoa)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

Ezker Anitza-IU aurkeztu dabe

ZAPATUAN PRESENTAU EBEN UNTZAGAN EZKER ANITZA-IU PROIEKTO POLITIKO barrixa. Ekitaldixan Gipuzkoa maillan taldeko koordinatzaillia dan Arantza González, Juan Luis Merino Gipuzkoako antolakuntza arduraduna eta urtietan ezkerreko taldiari lotuta biharrian jardun daben Elixabete Gómez, Rosa Caballero, Fernando González Egaña, Inmaculada Urizar eta Luis Santos egon ziran. Oin momentuan Eibarko Udalian ordezkariak ez badake be,

alderdiko kidiak biharrian diharduela argitu nahi izan zetsen ekitaldira batutako herritarrei eta, bestiak beste, ekaiñaren 26xan Eibar III. Errepublikako Udalerriaren Sarriri lotzeko moziñua presentau ebela azaldu eben: *"PSE eta Bildu alderdixen laguntasuna eskertu nahi dogu, eurak moziñuaren alde egittiarri esker Eibar III. Errepublikako sare horretan sartzia posible izan dalako"*. Bestalde, Stop Desahucios plataformakuekin siñadurak batzeko ekimenian al-



Herriko ordezkariak Gipuzkuako karguekin egiñ eben aurkezpena.

karlanian dihardue eta, horren harira, uztaillaren 12xan Untzaga plaza parian siñadurak batzeko mahaixa ipiñiko dabela aurreratu eben. Taldiarekin kontaktuan ipiñi nahi dabenak

horretarako aukeria daka gipuzkoa@ezker-anitza.org helbidera e-maila idatzitta, www.ezker-anitza.org webgunian sartuta edo 943-114962 telefono zenbakira deittuta.



Kaleetan Kantuz-ekuak be jardun zeben Karmen kalia egindako ekitaldixetan. / LEIRE ITURBE

Sanpedruak giro edarrian ospatzen

EKAIÑAREN 28-XAN ETA 29-XAN EDERTO OSPATU ZITTUEN SAN PEDRO JAIXAK Karmen kalia, Beheko Tokia jubilau etxeakuek preparautako programaziñuari esker. Eguen arratsaldian toka eta igel-toka txapelketak jokatu zittuen eta, horrekin batera, umiak izan ziran protagonista nagusixak, euredako preparautako joquetan eta Gorritik eruandako

animalixekin jolasian jardunda. Eta barixakuan, San Pedro egunian, eguardittik ekin zetsen jaixari, mezia ospatuta. Arratsaldian, barriz, musikiak bete eban programia, Voces y Cuerdas taldiaren emeraldixarekin hasi, Kaleetan Kantuz abesbatzako saiuairekin jarraitu eta Tukan taldearen eskindutako dantzaldixarekin amaittuta.



Arratietarako txosna eta saltokietarako eskaeriak

ARRATEKO JAIXETAN ERROSKILLAK ETA PASTELAK SALTZEKO POSTUAK IPINTZEKO asmua dakenak eskaeria lehenbailehen egin biharko dabe, Pegoran, horretarako epia uztaillaren 13an 13.30xetan amaittuko da-eta. Eskaeria egitteko orrixak Pegoran bertan edo www.eibar.net webgunian eskuratu leikez. Epe berbera eukiko dabe txosnak ipiñi nahi dittuen talde eta alkartietako ordezkariak. Azken honek, bestalde, txosnen inguruko kontuak zihezteko billeria egingo dabe uztaillaren 16xan, 13.00ean udaltekoko 2. pisuan.



Oporrak Afariketean pasauko dittue 500 umek

URTEK URTERA GORA EGITTEN DAU OPORRAK AFARIKETAN PROGRAMIAK erakarrittako umien kopuruak. Aurten 5-12 urte bittarteko 500 bat umek hartuko dabe parte Udalak Astixa aisialdi enpresiarene bittartez eskintzen dittuan jardueretan. Horretxek aurrera eruateko, udaleku irekixetan 30 begiralek jardungo dabe biharrian egunotan. Programiaren helburua, *"umiak aisialdi sozializatzailliaz, hezitzailliaz eta osasungarrixaz gozatzia da eta, bide batez, umieri eskolatik kanpora be euskaraz berba egitteko aukeria emoten jakue"*.

Ibarretxe, Cancelo eta Zubiaurre Armerixan

ARMERIXA ESKOLIA SORTU ZALA 100 URTE PASAU DIRALA OSPATZEKO

programaziñuaren barruan, datorren asteko eguenerako (11.00etan) topaketia antolatu dabe: Antonio Cancelo (Eroski eta Mondragon Korporaziñuaren sortzaillia), Eduardo Zubiaurre (Adegi-ko presidentia izandakua) eta Juan José Ibarretxe (1999-2009 bittartian lehendakarixa izandakua) "Hablando sobre valores, progreso, sostenibilidad..." izenburuari jarraituta nahi daben guztia-



rendako zabalik egongo dan ekitaldixan berba egitteko gonbidatu dittue eta ekitaldixa aurkezten, barriz, lidertza eta "coaching"-ian aditua dan Juan Carlos Cubeirot jardungo dau.

Ikasle onenari sarixa Eibarrera

ELGOIBARKO IMHIAN KURSUA AGURTU AURRETIK, GORKA ETXEBERRIA GORROTXATEGI eibarrarak (1978) espediente onenari emoten jakon sarixa jaso eban. Saritutako gaztia mekatronikako



Gorka Etxeberria sarixa jasotzen.

goi-maillako zikloko ikaslia da eta Soraluze E.Koop-en dihardu biharrian, lanerako prestakuntza enpresa honetan amaittu ostian bertan biharrian jarduteko kontratau eben-eta. Hortik aparte, auto-lasterketa munduan dabizenen artian ezaguna ei da. Ikasle aipagarrixaren sarixa 800 euroko ikasketapoltzak osatzen dau eta premixua Carlos Crespo Lanbide Heziketako sailburuordiak emon zetsan.

autuan

36 ETXE-KANPORAKETA

Eibarko epaitegixak etxe-kanporaketarako 36 agindu emon dittu, errentak edo hipotekak ez pagatziagaittik. Krisixak holako kasuak ugaritzia ekarri dau eta, horregaittik, egoeriari aurre egin bihar detseneri laguntzeko asmuarekin bitartekaritza zerbitzu barrixa ipiñi dau martxan Eusko Jaurlaritzak.

LUCAS ALBERDIREN KUADRUA FRANTZIARA

Eibarko Pedrucho Zezenzaleen Elkartekuak ekaiñian Frantziara jua ziran, Soustonsen daguazzen zezenzaleri Lucas Alberdi artistak egindako Manoleteren irudixaren erreprodukziñua oparitzeko.

eitek 
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

Zerbitzu Teknikoa - Gestio Konponbideak -
Sistemen Instalazio eta Administrazioa - Internet

  **TOSHIBA**
Leading Innovation 100


Urtzaila, 1 (Aurrera edifizioa, C lokala). Eibar
Tel. 943203090. Fax 943204249
www.eitek.net - eitek@eitek.net

EGOITZA NAGUSIA
Bibburrieta 20 - behea, eskuna

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

Tanatorioa eta Errozketa labea
Egoiberran (Signo poligonoan):
Partikelak, nutria eta aieguri enesi zerbitzuak
Korokak - Eskelak - Urteurrenako eskelak
Euskal Herri osoa ospitaleen hartzen zaitegu
Nazio eta Nazioarteko tresnyak


Mugica Ehorzketa
Errozketa labea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

asteko

1.450

datua

laguneko topera ailegau ziran kanpoko igerilekuan ekaiñaren 26xan eta segurtasun neurrixengaitik itxi bihar izan eben. Azken konponketen ostian uraren tenperatura 20-21°C ingurukua da.



Jesus Astigarraga hil da

UZTAILLAREN 1-IAN HIL ZAN JESUS ASTIGARRAGA, 75 URTEREKIN. Giza-arloko gaixekin ardura haundixa erakutsi eban eibartarrak, hainbat proiektu eta ekimenetan hartu eban parte. Bestiak beste, Deparkel Debabarrena Parkinson alkartiaren sorreria (2005) berak egindako biharrari zor de tsagu eta alkartia eratu eta denpora gitxira Gipuzkoan sortutako lehelengo Nagusixen Kontseilluko, Debabarrena-kuaren presidente izendatu eben eta urtiak emon zittuan karguan. Famelixak eta lagunak, beste herritar mordue-ekin batera astelehenian emon zetsen azken agurra, San Andres elizan bere alde egindako hillela-elizkizunian.

Aurrerapausuak ospitalerako proiektuan

SANJUANAK PASAU ETA SEGI-DUAN, OTAOLA HIRIBIDEKO ORUBEA BIRKALIFIKATZIA onartu eta osasun-ekipamendu izendatu dabe Udalbatzan. Holan, bertan jaso nahi daben Ospitalerako proiektuan "beste aurrerapauso inportante bat" emon dabela azpimarratu dabe agintarixak eta, gaiñera, bide batez oiñ arte Udalarena zan lurra Eusko Jaurlaritzari emon detse. Holan, Ospitala jaso eta martxan ipintzeko Udalak Osakidetzarekin hartutako konpromiso bi bete dittuela diñue. Oiñ arte erabillera industrialerako zan orubearen izendapena kanbixatzeko, bestalde, Plan Nagusixan aldaketa batzuk egin bihar izan



Eusko Jaurlaritzak idatzitako biharko dau oiñ Ospitalerako proiektua. / SILBIA HERNANDEZ

dittue. Gauzak holan, eta Miguel de los Toyos alkatiak esandakuari jarraituta, emon biharreko hurrengo pausua Eusko Jaurlaritzak emon bihar-ko dau, Ospitalerako proiektua idatzitta: "Honez-ker horretan hasitta dagoz eta uztaillian bertan amaittuta egotia dago aurreikusitta".

Udako ordutegixa Pegoran eta Portalean

UZTAILLAREN 1-AZ GE-ROZTIK ETA IRAILLAREN 15-ERA ARTE, Pegora Herritarren Zerbitzurako Buleguak bakarrik goizez hartuko dau jendia, 08.30xetatik 13.30xetara. Horrekin batera, 010 / 943708400 telefonuetara deitzeko ordutegixa 08.00etatik 14.00etara bittartekua izango da. Iraillaren 16xan atzera be kanbixauko dabe Pegoran jendiari harrera egitteko or-


dutegixa. Bestalde, Portaleko ordutegixan be kanbixauk egon dira: uztaillian astelehe- netik barixakura 09.00etatik 20.30xetara zabalduko dittue kultur etxeko instalaziñuak (uztaillak 31n itxitta egongo da) eta abuztuan, barriz, 09.00etatik 13.30xetara. Gaiñera, abuztuaren 13tik 19ra bittartian eraikiña itxitta egongo dala iragarri dabe bertako arduradunak.



Plan Estrategikuaren ebaluaziño positibua

UDALEKO GOBERNU TALDIAK "OSO POSITI-BO" MODURA BALORAU DAU oin dala 13 urte sortutako Eibarko Plan Estrategikuaren gaiñian egindako ebaluaziñua. Eurak diñueenez, planak jasotzen dittuanetik % 60 bat modu egokixan bete dira. Baloraziñua egitteko orduan, bestiak beste, LKS enpresiak herritarren artian egindako inkestako datuak hartu dittue kontuan. Galdereri erantzun daben eibartarren %65'4k azken urtiotan Eibar "kanbixau egin dala" pentsatzen dabe; %24k herrixa "zertxobait" kanbixau dala diñue eta "gitxi edo bapez" aldatu dala pentsatzen dabenak %10'6 dira.

Berrikusketia egittian planaren 4 lerro estrategiko- ren gauzatze-maillari begiratu detse: Eibarren ekonomixia eta produkziñorako-egituria eraldatzia, dibersifikatzia eta erabarriztia; hirigintza barriztia eta ingurugirua hobetzia; herrixa bizi-kalidade hobiare-kin hornitzia; eta, azkenik, Eibarrek eskualde-buru modura euki leikian irudixa indartzia. Horretzek az-



tertzeko, barriz, udaleko teknika-riekin alkarrizketak egin dittue, herritarren parte-hartzerako taillarrak antolatu dira eta herriko alkartietako batzuk bertan parte hartzen izan dira eta, horrekin batera, herritar- reri telefono bidezko galdera batzuk egin detse. Betetzia lortu daben artian, bestiak beste, El Cor- te Inglés-a zabaltzia, Eibar Merkataritza Gune Irekia markia sortzia, Orbea kiroldegixa martxan ipintzia, protekziñoko etxiak eraikitzia eta auzuetarako akze- sibilidadia hobetzeko eskillara mekanikuak eta igo- gailluak ipintzia azpimarratu dittue.

Espazio publikua zelan erabili arautzeko Bilboko Udalaren azken ordenantzaren arabera, kalian jarduten daben musikuak arau batzueri jarraitu beharko detse aurrerantzian: gitxienez 10 kantu jakin beharko dittue eta 45 miñututik behin tokiz mugitzen juan beharko dira.

Kaleko musikueri arauak ipiñiko zetsazuen?



ALES UGARTEBURU
16 urte
ikaslia

Egixa esan, neri bardin desta hola-ko neurriak hartzia ala ez. Nik oiñ arteko moduan, bardin pasauko naiz musikuen aurretik eta ez desta ezertan eragingo arauak zer esaten daben. Neri ez desta bape trabarik egitten.




RAFA GIL
28 urte
langabia

Kasualidadia, ni Bilbokua naiz. Neri ondo begittantzen jata hola-ko arauak ipintzia, holan ez dogu beti musika bardiña entzungo eta, gaiñera, musikarixak ez dira beti toki bardiñian geratuko.


ESPERANZA TERUELO
58 urte
langabia

Ondo ikusten dot kaleko musikuak 45 miñututik behin tokiz aldatzia, holan danok eukiko dogulako euren musikiarekin gozatze-ko aukeria. Gaiñera, norberaren etxe azpitan beti musika jotzen egoten dan bateren bat badago, nahiko aspergarria izaten da.



ANA ALONSO
36 urte
administrarixa

Arau txiki batzuk ipintzia ez dot txarto ikusten. Gauzia da musikia bariua izatia eta modu egokian egittia. Gitxieneko baldintza batzuk betearazteko balixo badau, ondo ikusten dot neurrixa.



IRABAZI AFARI BAT ZURE KUADRILLARENTZAT

Sagardoarekin lotutako hitz, esamolde edota esaldiak biltzen ari gara. Inoiz entzunak, zein asmatuak.



Bidali nahi adina proposamen:
lehiaketa@sagardogorenak.com #gorenak

SARIA: 8 lagunentzako afaria GORENAK taldeko zuk nahi duzun sagardotegian.

Epea: Uztailaren 5a baino lehen.
(Uztailaren 8ko Berria jakingo da irabazlea).


Epaimahaia: Joxerra Garzia, Arantxa Iturbe eta Xabier Paya

WWW.SAGARDOGORENAK.COM

Amañako jaixak asteburu osorako programaziñua egin dabe; eta ez hori bakarrik, hurrengo asteburuan be jarraipena izango dabelako hainbat ekitaldirekin. Jaixen sasoi betian gagoz eta, holan, hurrengo asteburuan Sankristobalak be ospatuko dira gure herriko auzo horretan.

Ezin da kontzertu potentiagorik antolatu" esan dabenak ez dira gitxi izan. Izen haundiko hiru talde ekarri ditту eta Amañako Jai Komisiñuak gaur gabeko kontzerturako: Esne Beltzak honezkero ezaguna dogun reggae, ska eta hip-hop doiñuak ekarriko desku, betiko lez trikitixarekin lagunduta; Zea Mays-ek sei disko ditту kalian honezkero eta azken urtiotan ez detsa laga kontzertuak emotiari; eta, azkenik, Willis Drummond be azken aldixan rock and roll munduan gure artian zeresan geixen emon dittuen taldien artian sartu geinke. Luze joko daben kontzertua gabeko 23.45etan hasiko da.

Aurretik, dana dala, txupinazua eta abar izango dira: Txupinazua Armerixa eskolak botako dau arratsaldeko 19.00etan, kalejiria izango da jarraixan eta 19.45etan herri-kiro-



Amaña-Urko-Amaña herri-krosa

Krosa be fijua da Amañako jaixen programaziñuan eta oinguan 15. ediziñua jokatu da bixar, zapatua, arratsaldeko 18.00etan hasitta. Ibilbidia betikua izango da, hau da, guztira 6 kilometro eta 560 metro beteko dittue parte-hartzailliak. Urkora igotzeko 3.600 metro egin biharko dittue (horko markia 24 miñutu eta 11 segundotan dago) eta jaitsierak 2.960 metro izango ditту. Proba osuaren gaur egungo markia 38 miñutu eta 4 segundotan dago. Izena lasterketa hasi aurretik emon leike.



Esnebeltza taldiak joko dau gaurko kontzertuan, Zea Mays eta Willis Drummond taldiekin batera.

AMAÑAKO JAIXAK: denondako egitaraua

lak izango dira ikusgai: Goenatxotarrak harrixa jasotzen eta Mugertzatarrak enborrak mozten. Entzierro txikixa be ez da faltako.

Danborradiak 20 urte egitten ditту

Bixar goizian pilota-partiduak izango dira frontoi barrixan eta, herri-bazkarixaren ondoren, umiendako parkia antolatuko da, espumaren jaixa tartian daguala. Herri-krosak Ermuko Irulitxak eskinduko daben kale-antzerkixari emongo detsa paso eta ondorengo merixendiak (tozineta pintxuak, 2x1 modalidadian) enzierro txikixari **-gaztelerazko programian kostilladia iragartzen bada be, ez dago halakorik aurten-**. Gabian, 23.00etan, helduen danborradak urtengo dau, su artifizialeri egingo detsa tartia eta gero jarraituko egingo dau, gabari Luhartz taldiak eskinduko daben berbeniak amaieria emoteko.

Domekan, bestalde, auzuan eta herrixan hildako guztien alde egingo dan mezaren ostian, saldia eta txorizua banatuko da eta 12.30xetan umien danborradia hasiko da; ez da faltako be Amañan ohikua dan lorontzi lehiaketia. Arratsaldian umiendako tarte berezixa izango da, tartian Gari, Montxo eta Joselontxo paillazuen "Konfetti" ikuskizunarekin. Eta txorizo-ogitartekuak Elegancia Mejicana mariatxiaren kallejonadari emongo detsa paso.


Datorren asteburuan, bestalde, barixakuan, hillaren 13an, jubilatuen bazkarixa egingo dabe lxua jatetxian eta bertso-afarixa izango da El Caserion; azken honetan Unai Iturriagak -Amets Arzallusen orde-jardungo dau Sustrai Kolinarekin batera. Eta domekan meza izango da, Goruntz abesbatzarekin.

EGITARAU OSOA 20. orrialdian

Frontoia inauguratzen

Frontoian eta inguruan egindako obrak oin bi hillabete inguru inauguratu baxiran be, lehelengo partiduak jai hauetan jokatu dira frontoi barrixan. Bixar goizian, 11.15etan hasiko da jaialdixa: lehelengo partiduan kadetiak eta gaztiak nahastuta jokatu dabe (Iker Narbaiza eta Andonegi Santamaria eta Larrauriren aurka) eta bigarrenian helduak eta gaztiak jokatu dabe, h6nek be nahastuta (Josu Zubizarreta eta Agirresarobe Luis Narbaiza eta Barrioren kontra).





Paella solidarixua IRATIREN ALDE

Urtero jaixetan egitten dan herri-bazkarixak aurtan barrittasun garrantzitsua izango dau: Bizimina oin dala gitxi gure herrixan sortutako alkartiak antolatuko dau eta hor jasotako dirua Fibrodisplasia Osifikante Progresibua gaixotasun arrarua ikertzeko erabiliko da. Paelladara jua ezin dabenendako "Fila 0" be egongo da txartela erosi nahi dabenentzako eta kontua be zabaldu da Laboralian. Gaixotasun hori daka Iratik, Amañako neskatxo batek, eta bere aitta Enrike Pérezek bultzatu dau alkartia eta badabil gaixotasun hori inbestigatzen laguntzeko beste ekimenak be egitten: holan, plastikozko tapoiak jasotzen dittue eta kamisetak eta rifak saltzeko asmua dake. F.O.P. gaixotasuna genetikoki sortzen dan horietakua dogu, "gitxiñaka gorputzaren gihar guztiak kalzifikatzen doiana, holan mugimendu ahalmena murrizten doiana eta, horrekin, gaixuaren bizi-kalidadia eta bizi-itxaropena". Gaixotasunak ez dauka sendabiderik; eta, larrixagua dana, "oiñ arte ez dago bere progresiñuari frenua ipintzeko tratamendurik". Iratik moduko gaixuak bihar daben laguntza jasotzeko sortu zan Bizimina alkartia maitezian eta laguntzeko edo informaziño gehixago jasotzeko honako web-era jo leikezue: <http://bizimina.weebly.com>

Lambrettak eta King Africa San Kristobalگو jaixetarako

Urteroko moduan, Lambretta motorren ingurukuak eta San Kristobal auzoko jaixak programako ekitaldi batian baiño gehixagotan bat egingo dabe. Izan be, ekitaldi bixak kalendarixuan urtero alkartzen diranez, sarritan alkarlanian jarduten dabe antolatzailliak. Edozelan be, jarduera gehixenak hurrengo asteburuan pillatuko dira, baiña bixen bittartian hamendik egun batzutara etorriko diranendako girotzen juateko modua eukiko dogu: izan be gaurtik bertatik hasitta eta hillaren 13ra bittartian herriko dendetako eskaparatietan Lambretta etxeko motorrak erakutsiko dittue Lambretta Eibar IX. Konzentraziñuaren harira eta azken urtiotako martxiari jarraituta.

Eta gaur zabalduko dabe Fernando Berorlegik egindako kuadreren kopixekin osatu daben erakusketia be San Kristobal auzoko tabernetan. Hillaren 15era arte martxan egongo dan erakusketia La Rampa San Kristobalگو Jai Batzordiak preparau dau, auzoko jaixak ospatzeko antolatutako programaren barruan.


Aurtan 9. ediziñua beteko daben Lambretta motorren koncentraziñuak barrittasun batzuk ekarriko deskuz: Gasteizko Vimoto banatzailliak eskindutako laguntasunari esker, oin dala hamarkada batzuk fabrikatzen zan 150 LI Especial modeluari jarraituta sortu daben Lambretta LN 125 motor barrixa, gaur egunian salgai dakena ikusteko aukeria eukiko dogu gurian.

Lambretta motorren zaliak, barriz, hillaren 13an (barixakuan) batzen hasiko dira, San Kristobalen eskinduko dan kontzertu bikoitzaren aitzakixarekin: lehelengo Mikel Arrietak jardungo dau kantuan eta, jarraixan, Lisker taldekuak iaz hil zan Josean Salado taldekide ohiari eskindutako kontzertuari ekingo detse. Zapatu gozian Untzagan hasiko dan mo-



torzalien topaketiak 100 bat lagun alkartzia espero dabe antolatzailliak eta, betiko moduan, herriko kalietan eta, zelan ez, San Kristobalen kalejiran ibilli ostian, aurtengo beste nobedadietako baten txandia aillegauko da: Arratera igo, motorrak bedeinkatu eta bertan danak alkarrekin bazkarixa egitteko asmua dake. Bazkalostian Mutriku aldera juatia pentsatzen dabe, beti be eguraldixak laguntzen badau. Informaziñua eskatzeko edo erreserbak egitteko www.clublambrettaeibar.com webgunera jo leike, lambretta_eibar@hotmail.com helbidera idatzi edo 660 674 299 telefono zenbakira deittu.

Bestalde, eta aittatutakuekin batera San Kristobalگو jaixetarako programaziñuan urteroko jarduerak topauko dittugu asteburu osuan. Ohikuari jarraituta, antolatzailliak arreta berezixa ipiñi detse zapatu gabeko kontzertuari eta, auzuak jendez gaiñezka egingo daben esperantziarekin, aurtan King Africa izango da taula gaiñian.



DOMINGO RODRIGUEZ TORTAJADA "TXOMIN"

"IZAR BERRIA PIZTU DA ZERUAN"

FAMILIAREN IZENEAN, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



TEEN-
AUEA



Itzamna
akademia

Ikasketak amaitu eta urteetan jasotako jakinduria zabaltzeko asmoarekin akademia zabaldu dute **ANDONI ZABALA, NATALIA GARRIDO** eta **JOKIN ROKANDIO** eibartarrek Bittor Sarasketa, 2an. Itzamna du izena eta "eskaintza zabala eta irekia" dauka. www.itzamnaakademia.net edo 943-255001 telefono zenbakian duzue informazio gehiago.

ITZAMNA AKADEMIA:

“Freskotasuna eman nahi diegu ikasketa metodoei”

- Zer moduz akademiaren lehen egunak?

JOKIN: Izan ere, gaur hasi gara (astelehenean egin genuen el-karrizketa).

ANDONI: Ume batekin margo-tzen eta abar ibili gara.

NATALIA: Gero, Jokin beste ume bati partikularra ematen egon da. Pozik irten dira, baita gu ere.

JOKIN: Uste dugu uztailaren azken asteetan ume gehiago hurbiduko dela hona; izan ere, Afari-riketetan dabilta eta horregatik.

- Zer da akademian eskaintzen duzuen?

JOKIN: Udarako eskaintza zaba-la ireki dugu (arte, eskola, in-formatika, kontzientziario taile-rrak, musika eta aisia arloetan), eta irailetik aurrera akademia baten dinamikan sartuko gara. Umeak arratsaldetan jasoko di-tugu klase partikularrak, ma-razketa klaseak, eskulanak eta abar egiteko. Goizetan hizkun-tzak, helduentzako informatika klaseak, helduentzako marraz-keta klaseak... emango ditugu.

NATALIA: Eskaeren arabera mol-datuko gara.

JOKIN: Hiruotako bakoitza adar ezberdinetatik gatzoz eta gure fi-losofia hezkuntza zabala eta ire-kia eskaintzea da.

- Akademia sortzeko presta-keta zer nolakoa izan da?

ANDONI: Hasi, azaro aldean hasi ginen ideia honekin.

JOKIN: Gero, lokala hartu ge-nuenetik hilabete eta erdi pasa da. Lokala egokitu, materiala prestatu, ikastetxeetara joan gu-rasoekin berba egiteko...

NATALIA: Azken hilabetean jo eta su ibili gara lanean.

- Zuek izango zarete akade-miako irakasleak?

ANDONI: Momentuz bai, dena betetzeko heltzen gara. Ea au-rrerago nola moldatzen garen.

- Metodologia eta teknologia berrietara egokitzen zarete. Zertan datza horrek?

JOKIN: Adibidez, 8 urteko ume bat badator eta berarekin ia or-du bi lanean badiharduzu, ma-tematikak egiteko ordenagailua erabiltzea jolas didaktikoe-kin. Gu ikasleak izan gara orain arte eta freskotasuna eman nahi die-gu ikasketa metodoei.

Ketesa 2010

bulego eta kolektibitatearako instalazio osoak eta materiala

altzariak, onkiak, marpatzak, liburategiak...


bulego materiala enpresetan banatzen dugu

*Estazioa kalea, 12
20000 Eibar*

tx: 943121973 / 943121974

fax: 943127068

email: info@ke2010.com



Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

Iradi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Uni Eibar-Ermua eta Armeria Eskola Frankfurten

Uni Eibar-Ermua eta Armeria Eskolako hainbat kide Frankfurten (Alemania) izan ziren ekainaren 10etik 16ra Alemaniako erakunde ofizialekin ekintzailetasun proiektuei buruzko lan-jardunaldietan parte-hartzeko. Eurekin Euskadiko Heziketa Profesiona-

leko ekintzailetasuna zabaldu eta inplementatzeko Behaketa Estrategikoko programako kideak, Urrats Bat (Heziketa Ziloetako ikasleen artean enpresak sortzea) eta EJE (Enpresa Gazte Hezitzailea) programetako dinamizatzaile talde bat, eta TK-NIKAk hainbat kide joan ziren.



Eibartarrak GmbH-n, Frankfurt-eko garapen ekonomirako erakundearekin, ere izan ziren.




Eibartik joandako ordezkariak Goethe Unibator unibertsitatean.

Leonardo programaren bitartez gauzatu ahal izan da ekimena, berrikuntza eta hezkuntza fasean. Europar Batasunean mugikortasuna bideratzen duen programa da Leonardo. Bertara joandako ordezkariak hainbat lekutan azaldu eta defendatu ahal izan dituzte goian aipatutako programak. Bestek beste, Goethe Unibator Unibertsitateko Natascha Hoebel eta R. Zicari

doktoreekin, JUMPP aholkularitza eta coachingeko Christiane Stapp-Osterodekin, IFE-Institut für Entrepreneurship Frachhochschuleko Hans-Jürgen eta Tobias Hagen doktoreekin, Tony Sender saria jaso zuen Dörte Jungekin, Companys's sucesion foroan eta ISIS-Institut für Soziale Infrastruktureko Vivian Guerrero egon ziren Alemaniara egindako bisitan.

Kurtso amaiera La Sallen

La Salleko Irakaskuntza Sustatzeko Elkargoak (ISE) eta La Salleko zuzendaritzak ikasleak zoriondu nahi ditu 2011-2012 kurtsoan izandako emaitza-onak direla-eta. Horrez gain, eskerrak eman nahi dizkie irakasle, familia, IGE, laguntzaile eta komunikabideei ere, "egindako lanarengatik eta gure hezkuntza-proiektuan eragile izateagatik".



Eibartar honek San Andres elizako lokaletako batian emon dau bere bizitzaren zatirik haundixena, Eibarko Cáritas-eko arduradun modura. Aurten jubilau dan eibartarrak 40 urteko tartian zenbateri lagunduko zetsen zenbatzia ez da lan erreza, baiña buleguan emon daben denporan, batzuetan gehixago beste batzuetan gitxiago, baiña egunero jendia hartu dabela diño. Izan be, bere esperientzixari jarraituta beti dago batenbat laguntza premiñan, hamaika arrazoi medio. Hórreri ahal izan daben neurrixan laguntzen pasautako urtieri errepassua emon detsagu.

- Zelan hasi ziñan Cáritas-en?

Lehelengotan boluntarixa moduan hasi nintzan bertan laguntzen, baiña gero biharrian jarduteko kontratua egin zesten eta holan emon dittut 40 urte, jubilatzeke sasoia aillegau arte. Ni biharrian hasi nintzanian ez eguan Gizartekintza edo instituziñuen ardurapeko holako beste zerbitzurik, baiña gizartian horretarako premiñia bazeguan, ordea. Izan be, gizartian eta gure herrixan bertan beti egon dira baztertutakuak. Urtiekin premiñak eta laguntasuna bihar dabena kanbixatzen jua dira, baiña bestela beti egon da laguntasan premiñia. Lehelengo urtietan bihar haundixa egin genduan adintxikikuak babesten-eta, 15 urtian holako kasuak bakarrik boluntarixuen esku egon ziran, beste zerbitzu batzuk sortzen jua ziran arte. Gurera etorri ziran lehelengo marrokixak, barriz, oingo etorkiñak moduan nazionalidadia lortu ahal izateko tramitietarako laguntasuna bihar eben. Azken urtietan, barriz, txarto jua diran negozio txiki asko itxi bihar izan dittue eta horrerri be lagundu detsegu, hipotekeri aurre egitten eta baitta bestelako tramitiek be.

- Zelakua da Cáritas-en egin dozun biharra? Nolako laguntasanak emoten dozuez?

Eibarren ez dakagu jangela eta holakorik. Jendiak emondako arropak-eta batu eta momento puntual batian arroparen bat bihar izan dabenari emon jako, baiña horretxek gehixenetan jua-etorrixan ibiltzen diranak izaten dira, gitxieneke kasuak. Izan be, go-

“Beti egongo da laguntasuna

bihar daben jendia”



ARRATE GARMENDIA (Eibarko Cáritas-eko arduraduna 40 urtian)

gorrena hamen bizi diranekin egin biharreku izaten da, gure laguntasanaren premiñia izaten daben establiekin egin biharrekua hain zuzen be. Gure biharra harrerria egitten dogun momentuan hasten da. Oso inportantia izaten da gurera laguntasan billa datorrenak zer esaten daben entzutia, denporria eskintzia, benetan zer bihar daben jakittek. Izan be, ez pentsau jendiak bakarrik diru-premiñia dakanik, beste hamaika arazo eta premiñia eukitzen dittu eta, horregaittik, benetan zer bihar daben ondo aditzia oso garrantzitsua da, informaziño egokixa emoteko edo bihar daben tokira modu egokixan bideratu ahal izateko.

- Horretan inportantiak izango dira norberak dakan psikologixia eta urtiekin hartutako esperientzixa, ez ba?

Bai, gaiñera kontuan euki bihar da guk laguntasuna emoten dogula, baiña helburua personiak berak bere arazuari aurre egittia dala, berak konpontzia, nahiz eta guk horretarako bidia zabaldu edo lagundu. Azken batian, arazuakin etorri danaren hazkunde

personala billatzen dogu, bestiak beste guk eskindu ahal detsagun laguntasuna ez dalako betirako izango eta, horregaittik, inportantia da norberak bere arazuarendako konponbidia topatzia. Bestalde, guregana etortzen dan personia eroso sentidu bihar da, zurekin konfianzia euki bihar dau, azken batian bere bizitzako gauza oso intimuak kontau bihar dotsuzelako eta hori ez da sekula erreza izaten. Denporiakun relaziñua ona izaten bada, horrek gauzak asko erreztan dittu. Honetan guztian intuiziñuak be pisu haundixa dauka.

- Kalian, herritar askoren artian zabalduen daguan perzepziñua jendia zeugana diru-billa jotzen dabela da, baiña hortik aparte beste gauza mordua egittan dittuzue, ezta?

Bai. Egixa esateko, jendiaren artian dirua banatzia gure biharren barruan atal txiki bat baiño ez da, txikixenetakua esango neuke. Gurera jotzen dabenak askoz be arazo larrixaguak ekartzen dittue normalian: nik biharrian emon dittudan urtietan, adibidez,

famelixa arazuekin etorri jatazen andrazko morduari lagundu detset. Oin dala urte batzuk asko dudaz beteta aillegatzen ziran, zer egin jakin barik. Gauzak sosiguz pentsatzeko esan, zelako urtenbidiak zittuen ondo esplikau, atzera be buruari buelta batzuk emoteko gomendatu... kontu delikauak izaten dira eta sarritan luze jotzen dabe. Beste batzuetan epaitegixetara jendiari laguntzera juatia tokatzen jatan, edo ospitalian operaziñoren bat zekan baten bateri trankillago egoteko kirofanoraiño laguntzia... piskat denetarik egin bihar izan dot.

- Honetan biharrian jarduteko bokaziñua be euki biharko da...

Bai, nere kasuan behintzat boluntarixio modura hasi nintzan honetan, gero biharrian jarduteko suertia euki dot eta atzera be, nahiz eta jubilauta egon, tarteka bertara jauten segiduko dot. Horrenbeste urtian relaziñuak-eta sortzen dira eta ez da erreza horrekin holan, beste barik eta egun batetik bestera amaitzia. Bestalde, nik gauzak zelan ikusten dittudan, bestieri laguntasuna emotia zeuri be laguntzen detsula pentsatzen dot. Bestien tokixan ipintzen ikasten dozu eta iñor ez dala beste iñor baiño gehixago ikusten da, edozeiñ egon leikiala bestien laguntasunaren premiñan. Beti prokuratzen dozu zure preokupaziñuak etxian lagatzia, bestieri hobeto lagundu ahal izateko, baiña sarritan, nahi barik be, buleguan kontautakuak, han entzundako arazo eta kezakak etxera eruaten zenduazen, burutik kendu ezinda eta soluziñua topau nahixan. Eta alderantziz be, neri gaixorik egotia tokau jatazan laguntasun haundixa topau dot biharre-

“Oiñ arte Eibarren jendiak ondo erantzun izan dau”



tik sortutako lagunen artian. Horrekin batera solidarixua izaten eta bestien debilidadiekin ez sartzen ikasten da. Eta, zelan ez, diskreziñua ezinbestekua da, zugaran konfidantzia ipiñi daben jendia errespetau bihar da.

- Holako dedikaziñua eskatzen daben zeozer egitteko etxeuak aldamenian eukitziak be bere garrantzixa eukiko dau, ezta?

Nik horretan suerte haundixa euki dot, famelixak eta ingurukuak ondo ulertu eta hartu izan dabelako egitten nebana, beti aldamenian euki dittud.

- Zeuengana jotzen dabenak eruandako istorixuak egunero eta horrenbeste urtian entzuten jardun eta gero, nundik etaritzen dira indarrak aurrera egiñ eta dana pikutara ez bidaltzeko?

Egunak eta egunak dagoz, danian moduan. Gaztetan beti pentsatzen da jendiaren justuagua izango dan sistemaren bat egongo dala, baiña urtiekin eta ezagutzen zoiazan esperientzixak euki daben ondoriuak ikusitta, edozein toki eta sistematan beti be herritar batzuk txarto egongo dirala ge-

ro eta argixago ikusten zoiaz eta horrerri laguntzen ahalegintzen zara, ez dago besterik.

- Azken aldixan, krisixa dala eta, Cáritas-era laguntasun billa jotzen dabenen kopuruak izugarri gora egin dabela diñue eta, holan segitzekotan, premiñeri erantzutia gero eta gatxagua izango dala. Zeuek be krisixaren eragiña igarri dozue?

Pentsatzen dot geuk ez dogula oindio holakorik ezagutu, Donostiara behintzat ez dala holako situaziño larririk aillegau. Bestalde, neretako oso inportantia izan da Cáritas barruan goititik topau doten errespetua, beti emon deste askatasun haundixa gauzak nik pentsatzen neban moduan egitteko. Oso ondo tratau nabela sentitzen dot.

- Urtian birritan herritarrengana jotzen dozue, Cáritas-endaiko dirua batzeko. Mailla horretan eibartarrak eskuzabalak garala esan geinke?

Bai, normalian Gabonetan eta sanjuanetan etxietan sobriak lagatzen dittue boluntarixuak, jendiak dirua emoteko eta oiñ arte Eibarren jendiak ondo erantzuten dabela esan bihar dogu.



EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

Jardiñeta, 3
20600 Eibar

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA 2012/2013

MATRIKULA OFIZIALA

HIZKUNTZAK: ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESA ETA INGELESA

Matrikula egin nahi dutenek **Internetez bakarrik** egin ahal izango dute www.eoieuskadi.net orrian.

Argibide gehiago: www.eoieibarheo.net orrian edo **943200618** telefonoan.

Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS

Bellatokia Funeuskadi Eibar: Otzola, 27 | Bulegoa: Diabazurra, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 82 15 39 · www.funeuskadi.com

ORRORI Funeuskadi
El primer gran funerario en Euzkadi

- Eibar • Donostia • Bilbao • Barakaldo • Leiza • Getxo • Sestao • Portugalete • Santurtzi • Galdakao • Sodupe • Espinosa de los Monteros •

Leioako Altzaga taldeak irabazi zuen Eibarko Hiria xake torneo

JOSE MARI KRUZETAREN OMENEZKO TORNEOAREN 28. EDIZIOAN hamabost talde eta 60 xakelari bildu ziren partida azkarren xake txapelketa jokatzeko. Bost minutuko hamalau partidak jokatu ondoren, Leioako Altzaga taldekoak izan ziren onenak, Donostiako Gros Xake Taldeari eta Errenteriako Fomento Cultu-

ralari aurrea hartuz. Klub Deportiboak hiru talderekin hartu zuen parte: B taldeak 4. postuan amaitu zuen, A taldeak 6.ean eta C-k 14.ean. Aipamen berezia merezi du Guillermo Llorente urte askoan Deporrekoko jokalaria izandakoak, 84 urterekin Donostiatik etorri eta Eibarko C taldearekin jokatu zuenak.



Xake torneo sari banaketaren protagonisten talde-argazkia.


Zubizarreta jubenila nagusi eskualdeko Udaberri pilota torneoan

UDABERRI PILOTA TORNEOKO ESQUALDEKO TXAPELA IRABAZI ZUEN Klub Deportiboko pilotariak, Zestean

jokatutako finalean Eizmendi zumaiarrari 22-20 irabazi ondoren. Ruizek ez zuen zorte bera izan 2. mailako jubenilen arteko finalean, 12 tantutan geratu baitzen Lazkaoko Urretabizkaiaren aurrean. Eta Bengoetxea ere ez zen gauza izan Udaberriko lau eta erdiaren finala bereganatzeko: 15na berdinduta egon ondoren, Jauregi aňorgatarrak 22ra zuzenean ihes egin baitzion.

San Juan torneo

Larreategi-Zubizarretarentzat izan da aurtengo edizioa, finalean Arribillaga-Lantz bikoiteak baino pilota gutxiago galitzen jakin izan dutelako. Aurretik Bengoetxeak beste behin lau eta erdiaren barruko txapela jantzi zuen, Txurrurari 22-19 irabaziz.



Zubizarreta gaztiak 22-20 irabazi zuen finalean.




11 urteko gaztea nagusi Asola-Berriko San Juan txapelketan

AZKOITIKO GARMENDIPE BOLATOKIKO IKER HIDALGOK AHOBETE HORTZ laga zituen berarekin parte hartu zuten lehiakide guztiak eta, zortzi txirilo botata, San Juan hiru-txirilo txapela eraman zuen etxera. Bere atzetik geratu ziren Ibai

Díez, Fran Larreategi "Txopen" eta Ganiz Rodríguez, hirurak ere Asola-Berrikoak. Beste irabazle batzuk izan ziren Idoia Muñoz (Azkoitiko Floreaga) emakumeen mailan eta Juan Luis Rodríguez "Txatua" (Asola-Berri) nagusietan.

Klub Deportiboko atleten emaitza bikainak estatuko eta Euskadikoetan

AINHOA AZPIAZU ESPAINIAKO AZPITXAPELDUN IZAN DA KADETE MAILAN JABALINA jaurtiketan. Castellónen jokatutako txapelketa horietan, orain arteko bere marka 72 zentimetrotan hobetu zuen eibartarrak. Aurreko asteburuan, bestalde, Avilésen jokatutako ziren junior mailako Espainiako txapelketan jardun zuten Martin Vouillozek eta Asier Azpiazuk: Vouilloz 4.a izan zen disko jaurtiketan eta Azpiazu 7.a jabalinarekin. Asteburu berean Durangoko pistetan jokatutako kadete mailako Euskadiko txapelketetan, Ainhoa Azpiazuk zilarra eskuratu zuen jabalina eta pisu jaurtiketan eta brontzea diskoarekin; hor izan zen Odei Jainaga ere.



Salmón-ek irabazi zuen boloetan

GURE HERRIKO CASA CANTABRIAK URTERO ANTOLATZEN DUEN bolo-lehiaketaren finala jokatu zen domekan eta Nojako Jesus Salmónek nagusitasuna erakutsi zuen, finalean Oscar Gonzálezek ateratzen zion 15 boloetako alde irauliz.

Urbateko igerilariak ikusgarri Euskadiko txapelketetan

AURREKO ASTEBURUAN GIPUZKOAKO TXAPELKETETAN egindako lana ona izan bazen (Martin Aizpirik eta Nora Varelak urrezkoa lortu zuten 100 libreetan eta bular erako 200etan, hurrenez hurren -bien artean zazpi domina eskuratuz- eta beste zazpi domina bereganatu zuten infantil mailakoek), azken asteburuan jokatutako Euskadikoetan goi-goi mailan izan da Urbateko ordezkaritza. Helduek Gasteizen zuten hitzordua eta Markel Alberdik ikuskizuna eman zuen (txapeldun hiru probatan), Nora Varela garaile izan zen bular erako 200 metrotan, Nekane Tejedorrek hiru domina irabazi zituen eta Martin Aizpirik lau (azken honek, gainera, 200 estiloko txapela jantzi zuen). Tolosan parte hartu zuten infantil mailakoek artean, bestalde, loar Urkirk hiru probetako txapelak jantzi zituen eta Azpiazuk, Moyak eta Egoitz Blancok bana lortu zuten.



Iratxe Moya, Ane López eta loar Urkiri infantil mailako igerilariak.

Eibar KE talde nagusia aldatzen

DATORREN DENBORALDIAN GAIZKA GARITANOK ZUZENDUKO DUEN TALDEAREN profila egituratzen doa gutxinaka eta aldaketa asko izango ditu. Dagoeneko hainbat fitxaketa egin ditu: Gernikatik etorri den Altamira atezaina, Terueletik datorren Aimar atzelaria eta Jon Errasti eibartarra (erdilariak Reala B-rekin jokatuko du).

du azken denboraldiotan). Horiekin batera, Yuri da beste jokalari berri bat, Realak lagata etorriko dena eta badira negoziazioak ere Getafe B-ko Dani García Realak fitxatu eta hona etortzeko lagata eta taldea interesatuta dago Alcoyanoko Diego Jiménez erdilaria fitxatzen. Aurrendenboraldian Realaren aurka jokatuko du.

Eibar Eskubaloiko infantilak garaile Tolosako San Juan Torneoan

EIBAR ESKUBALOIAN EGITEN DEN HARROBI LANAREN ERAKUSLEIHOA izan genuen Tolosako VI. San Juan Torneoan. Nagusien bigarren jarraituz, infantil mailako taldeak Urola gainditu zuten finalurrekoetan (17-7) eta finalean, Zarautzekin 24na berdindu eta gero, penaltietan nagusitu ziren.



Jose Maria Arrazola beterano onena Treparriscos proban

SABIÑANIGON QUEBRANTAHUESOS ETA TREPARRISCOS PROBAK jokatu ziren ekainaren 23an, eta hainbat eibartarrek hartu zuten parte bertan. Espainiako zikloturismo proba ezagunenak dira horiek biak eta partaidetza handia biltzen dute urtero Pirinioetako errepideetan. Aurten, gainera, Jose Maria Arrazola "Maltzaga" eibartarra igo zen podiumera, Treparriscoseko beterano onenaren saria jasotzera: 74 urteko eibartarrak 4 ordu eta 4 minututan amaitu zuen proba eta, be-

re berbetan, "gogorra izan zen, hasieratik maldan gora jo genuelako". Ez da lehen aldia horrelako lasterketetan parte hartzen duena; gaztetan afizionatu mailan ibili zen txirindularitzan eta, ondoren, Quebrantahuesos eta Treparriskosean seina aldiz jardun du. Inoizko bere denborarik onena lortu du aurten, "baina datorren urtean 4 ordutik behera egin nahi dut". Gogoia eta entrenamendua ez zaio faltako: "Atzo 70 km egin nituen bizikletan", aitortu zigun aurreko barixakuan.



Arrakasta herriko I. Golf Torneoan

ZAPATUAN IPURUAKO ANEXOAN JOKATUTAKO GOLF TORNEOAN ehun lagunetik gora izan ziren parte hartzen, euretatik erdiak baino gehiago neska-mutilak. Guztiek ere Javier Balzategi (Irelore Golf), Javi Alonso eta Carlos Roca (PGA Espainiako presidentea eta Meaztegi Golf-eko gerentea) maisuen aginduetara jardun zuten. Sailkapenei dagokionez, neska-mutiletan Asier Zenarruzabeitia izan zen onena, Oscar Campano eta Maier Fernándezen aurretik; eta, helduetan, Juan Carlos Blanco nagusitu zen, eta Eneko Eizagirre eta Mikel Vítores izan zituen atzetik.

Frankismoari buruzko liburu-aurkezpena

MARTITZENEAN, 19.00-ETAN "LA ESPIGA CORTADA Y EL TRIGO LIMPIO" LIBURUA aurkeztuko du Portalean Cándido Ruiz González egileak. Geografia, Historia eta Soziologian lizentziatua eta Historian doktorea den Ruiz Gonzálezek II. Errepublika sasoian eta Frankismoaren lehen urteetan (1936-1945) Toro (Zamora) eta inguruan gertatutakoak bildu eta aztertu ditu liburuan eta bertan bere doktore-tesiaren (Salamanca Unibertsitatea, 2011) zati handi bat irakurleen eskutan ipini du.



Begirale ikastarorako izen-ematea

TITULAZIO OFIZIALA LORTZEKO BEGIRALE IKASTARO INTENTSIBOA emango dute Urtxintxa Eskolakoek irailaren 29tik aurrera Eibarren, barixakuetan 16.00etatik 20.00etara eta zapatuetan 09.00etatik 14.00etara eta 15.00etatik 18.00etara: 18 urtetik gorakoek eman dezakete izena, irailaren 11ra arte, www.urtxintxa.org webgunean edo 943270033 / 943708435 telefono zenbakietara deituta. Matrikulak 500 euro balio du (aterpeko asteburuak barne) eta ikastaroan parte hartzeko izena ematen dutenek 200 ordu teoriko eta praktikatiko 120 ordu bete beharko dituzte.

Uztailerako argazki erakusketak

EIBARKO KLUB DEPORTIBOAK UZTAILERAKO PRESTATU DITUEN ARGAZKI ERAKUSKETAK hauek dira: Antonia Lópezen lanak Portalea tabernan egongo dira ikusgai, Grupo Aula 7 taldeko kideena Deporren eta José Luis Irigoienek "Baltiko" izenburuko El Ambigú tabernan. Hiru erakusketak hilaren 31ra arte egongo dira martxan.



UEUren ikastaroen bigarren txanda

DATORREN ASTEAN, UZTAILAREN 9-AN, HASIKO DA UEUK EIBARRERAKO presatatu dituen udako ikastaroen bigarren txanda Markeskua jauregian: "Herri-mugimenduak eta militantzia-ereduak", "Hondakinen kudeaketa eta tratamenduak", "Euskal emakumeen historia osatzen", "Murgildu robotikan LEGO NXTrekin", "Sexualitatea, gazteak eta sare sozialak", "Identitate di-soluzioak: narrazio performatiboak, generoa eta euskal identitatea uztartuz", "Bioeraikuntza eta Geobiologia: bizitzeko eraiki", "Zentzumenen terapiak: psikaromaterapia, musikoterapia, irudikapen sortzailea...", "Lazarragaren testuak DBHn erabil-

tzeko" eta "Scratch: teknologia berriak ikasgelan" izenburukoak emango dituzte datozen egunotan.

Bestalde, gogoan izan Eibar-ko Udalak ikastaroetarako dirulaguntzak ematen dizkiela Eibarren erroldatutakoek: matrikularen kostoaren %50 bueltatuko die eskaera egiten dutenei, ikastaroetan %85 edo gehiagoko asistentzia izan badute (Markeskuako ikastaroetan) eta gauza bera egingo du Eibartik kanpora UEUK emandako ikastaroetan, eskatzailea langabetua edo ikaslea baldin bada eta %85eko edo gehiagoko asistentzia izan badu. Eskerak Pegoran aurkeztu behar dira irailaren 28rako.

Arrateko bertso afarirako txartelak



URTEROKO MARTXARI JARRAITUTA, AURTENGO ARRATEKO JAIETARAKO BERTSO AFARIA antolatuko du ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Irailaren 7an, barixakuan izango da afaria Kantabria jatetxean, 21.00etan hasita eta bertan jardungo duten bertsolariak Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi eta Igor Elortza dira. Sarreraren salmenta hasieran bakarrik bazkideentzat izango da, astelehenean hasi eta uztailearen 20ra bitartean: txartel bakoitzak 28 euroko prezioa izango du eta bazkide bakoitzak bakarrik txartel bana erosteko aukera izango du, ...eta kitto! Euskara Elkartearen bertan (Urkizu, 11 solairuarekin). Bestela, bazkide ez direnentzat sarrerak uztailearen 23tik aurrera ipiniko dituzte salgai 29 eurotan Sagar Bitza, Kultu eta Kantabrian.

Galettebeitia-Ibarzabal txapeldun Plazatik Gaztetxera-n

AURREKO ZAPATUAN JOKATU ZEN PLAZATIK GAZTETXERA TXAPELKETAKO FINALA Eibarko gaztetxean. Bazkaritarako zeuden 200 tokiak bete egin ziren eta gerturaturako lagunek giro ederrean eman zuten bazkaria zein bazkalostea. Kanporaketak jokatu ostean, honako bikoteak ailegatu ziren aurreko asteburuko finalera: Peru Vidal eta Imanol Uria, Nerea Ibarzabal eta Xabat Gallettebeitia, Eneko Beretxinaga eta Mikel Olaizola eta Maddi Sarasua eta Aimar



Xabat Gallettebeitia eta Nerea Ibarzabal, txapelekin agurra abesteko prest. / LEIRE ITURBE

Karrika. Finala, berriz, zati bitan jokatu zen: lehendabizikoan 8ko handian eta txikian ofiziotan, puntu banari erantzunez, amaiera emanda bertso bana osatuz, kopletan bina eta bakarkako gaiari bina bertso botaz jardun behar izan zuten bertsolariak. Jarraian,



antolatzaileek paper batzuk banatu zituzten publikoaren artean gustuko bikotea hauta zezaten. Epailerek Nerea Ibarzabal eta Xabat Gallettebeitia aukeratu zituzten buruz burukora pasatzeko eta publikoak, berriz, Eneko Beretxinaga eta Mikel Olaizola. Bi bikote hauen artean erabaki zen txapela eta, azkenean, epailerek aukeraturako bikoteak jantzi zuen txapela.

I. Ojanguren eta A. Errasti lehiaketak martxan



INDALEZIO OJANGUREN XXV. ARGAZKI LEHIAKETARAKO DEIA egin du Udalak, Klub Deportiboaren laguntzarekin. Argizaiola Lehiaketaren sailkapenerako baliagarria izango den argazki lehiaketan parte hartu nahi duenak gehienez 3 argazki zuri-beltez eta beste 3 koloretan aurkezteko aukera izango du eta horretarako epea urriaren 10era arte egongo da zabalik. Lanak entregatzeko zein informazio zabalagoa eskatzeko Portaleara jo daiteke (Bis-

ta Eder, 10). Bestalde, Asier Errasti Eibarko XIII. Laburmetraia Jaialdirako lanak urriaren 5era arte jasoko dituzte. Sail bitan parte hartzeko aukera izango da, fikzioan eta animazioan, eta laburmetraiak DVD batean entregatu beharko dira. Lanak aurkezteko eta informazioa eskatzeko www.planocorto.es edo www.eibar.net webguneetara jo daiteke, cultura@eibar.net posta elektronikora idatzi edo 943708435 telefono zenbakira deitu.

laburrak

SOROSLE IKASTAROA

DYA Gipuzkoak Lehen Sorospen eta Sorosle ikastaroa emango du Eibarko bere egoitzan (Pagaegi, 5 behean), uztailaren 11tik 24ra bitartean, 10.00etatik 13.00era. Informazioa eskatzeko edo izena emateko 943464622 telefono zenbakira deitu daiteke.

1945-EAN ETA 1962-AN JAIOTAKOAK

Urriaren 4an batuko dira 1945ean jaiotakoak, elkarrekin bazkaltzeko. Joateko interesa duenak informazio gehiago eskuratuko du Mari Carmen Susaetari 696626593 telefono zenbakira deituta. Eta 1962an jaiotakoan bazkaria, berriz, urriaren 20an egingo da. Bazkariaren gain, beste ekitaldi batzuk antolatzen dihardute. Joan nahi duenak 80 euro sartu beharko ditu Kutxan, 2101 0035 11 0128245024.

CIELITO-REN KONTZERTUA

Cielito Musika Bandakoek, urteroko moduan, gaueko kontzertua eskainita girotuko dute udako gaua hilaren 13an, 23.00etatik aurrera, Toribio Etxebarria kalean



CELESTINO NARBAIZA ANSOLA

I. URTEURRENA (2011-VI-25)

Aurrera egiteko zenuen bizipoza eta kemen handi hori izango da gu denon gidari. ETXEOEN PARTEZ



Mikrofonoaren atzetik eszenatoki gainera jauzia eman du Juanma Canok. Hogeitaka urte daramatza irrastian Eibarko berriak ematen eta, orain, Teatro Interiorren kidea ere da. Gaur gauean Republicados saioa eskainiko du antzerki talde eibartarrak San Andres elizako klaustroan 22.30etatik aurrera.

- Joan den urtean Coliseoan aurkeztu zenuen Republicados eta orain San Andres elizako klaustroan. Toki berezia.

Teatro Interiorren denbora gutxi daramat eta iaz aritu nintzen lehenengo aldiz klaustroan. Toki berezia da eta publikoari ere aukera berriak eskaintzen dizkio. Leku atsegina da eta gau ona egiten badu, zoragarri.

- Nolako aho zaporea geratu zitzaizun zure lehen emanaldian?

Demasa izan zen, oso ondo pasatu nuen. Irrati esatariarena egin nuen obran eta horrek segurtasuna eman zidan. Nire ingurunean nengoen eta paperak aurrean nituen. Gainera, nire kideak zoragarriak dira. Horrelako zerbait egiteko gogoia nuela ikusi nuen eta probatuz gero, engantxatu egiten zaitu. Hura debuta izan zen eta aurten Balada de perdedores antzezlana egin dugu. Azken hau askoz ere serioagoa da eta urduritasun gehiagorekin bizi izan dut.

- Zer moduz Balada de perdedores antzezlarekin?

Lan handia izan da. Bonbardaketaren 75. urteurrenarengandik Udalaren aldetik jasotako enkargua izan zen eta oso pozik gaude emaitzarekin. Emanaldi gehiago egiteko gogoarekin gaude. Antzezlana bat prestatzen duzunean ez dakizu gero zer gertatuko den, agian behin bakarrik aurkeztuko duzu, eta hainbeste lan egin ostean, eszenatokian dena azkar pasatzen da.

- Republicados aurretik, izan zenuen antzerkia egiteko gogorik?

Ez, pentsatu ere ez nuen egiten. Nik pen-



JUANMA CANO (kazetaria eta aktorea):

“Antzerkiak, probatuz gero, engantxatu egiten du”

tsatzen nuen, “testu guztia ikastea...”, eta gero konturatzen zara gutxienekoa hori dela. Pertsonaiaren keinuak, berak sentitu beharko lukeena sentitzea... da zailena, horrela iritzen direlako gauzak ondo. Antzerkian aritzeko inflexio puntu bat zehaztu du nigan.

- Irrastian entzule askori zuzentzen zara eta antzerkian publikoaren aurrean antzeztan duzu. Alde handia dago?

Oso ezberdina da. Askotan esan dut, ez dela berdina irrati saio bat estudioan edo jende aurrean egitea, azken hau askoz gogorragoa da. Hogeitaka urte daramatza irrastian eta ohituta nago horretan aritzera, baina eszenatoki gainean aritzea gogorra da. Hala ere, eszenatoki gainean egoteko momentuaren heltzeko zain nago, momentuaz gozatzeko.

- Teknologia berrien agerpena egon da, internet, denbora aurrera joan da, baina irratiak hor jarraitzen du eta jendeak irrati entzuten du. Zergatik uste duzu gertatzen dela hori?

Telebista agertu zenean irrati hilda zegoela esan zen eta ez zen horrela izan. Irratia erreferente informatiboa izan da, telebista baino lehenago, duen berehalakotasunaren-

gatik. Internetekin gauza bestelakoa da, baina irrati egokitzen dihardu.

- SER irrati kateak 200 langile kaleratzeko EREa aurkeztu du. Honek eragina izan dezake Radio Eibarren?

Ez gaude SER irrati katearen egituraren bareruan, baizik eta SERekin lotura duen kontzesioa duen enpresa batean. Ikusiko dugu ea eragina duen SERen neurriak edo ez. Duela egun batzuk Jorge Hernandez kirol arloan aritzen zen kazetariak Radio Eibar utzi zuen, kontratua amaitzen zitzaiolako, eta hemendik aurrera ikusiko dugu zer gertatzen den. Komunikabideen kontua ez dago errealitatekin at eta, sektore guztietan bezala, irrastian lan egiten dugunak kezkatuta gaude. Hala ere, krisiak komunikabideetan eragina izateak arriskua dauka, izan ere, kazetaritzak gizartean paper bat dauka, eta lan ezengonkortasuna kazetarien independentziaren eta hauek lana egoera onean egitearen kontra doa. Gai arriskutsua da. Gauza ez da bakarrik kazetariak langabezian geratzea (eraikuntzaren ondoren langabezia gehien duen sektorea dena), baizik eta norbanakoak informatzeko, informatua izateko eta ezagutzeko dituen eskubidea izatea.


Elkarrizketa osoa: www.etakitto.com

JOSE ANTONIO AGIRRE ARRIOLAREN 1. URTEURRENA (2011-VII-4)

“Beti izango zaitugu gure bihotzean”


ZURE FAMILIA

**Haren aldeko meza ospatuko da hilaren 7an (zapatuan),
19.00etan hasita, Karmengo parrokian**




laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, AMAIA, printzesa, domekan sei urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IÑIGO, zure bigarren urtebetetzia dala-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, ANE Maiora, potxola, Sanjuan ostian bederatzirte egin zenduazena-eta. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, NORA Larreategi, aurreko barixakuan bederatzirte bete zenduazena-eta. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, DANIELA, aurreko barixakuan zazpirte egin zenduazena-eta. Muxu bat etxekuen partez.




Zorionak, OINATZ, domekan zortzi urte egin zenduazena-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NAGORE, domekan bi urte egingo dozuzelako. Oso ondo pasa! Muxu haundi bat famelixakuen partez.




Zorionak, MADDALEN, astelehenian 11 urte bete zenduazelako. Laztan haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Mirenen partez.




Zorionak, JON ANDER, ekaiñaren 30ian bost urte egin zenduazena-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Ongi etorri, JON Justel Cabezón, ekaiñaren 28tik gure artian zagozelako. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, ELENE, martitzenian sei urte egin zenduazelako. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JOKINTXO, atzo bost urte bete zenduazena-eta. Muxu haundi bat aitaxo, amatxo, famelixa osua eta, batez be, zure izeko Mariaren partez.




Zorionak, SILBIA, domekan urtiak bete zenduazelako. Laztan haundi bat laguneren partetik.



Zorionak, MIKEL, zure bigarren urtebetetzian. Muxu haundi bat Ander, Gorka, ama eta aittaren partez.



Zorionak, ANER eta UXUE, hillaren 12xan bi urte beteko dozuez-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, IZARO eta LUR, aurreko astelehenian hiru urte egin dozuez-eta. Amama, Asier, Txus eta Aneren partez.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
6an: 22.30
7an: 17.00
8an: 20.00

"MS1: máxima seguridad"
Zuzendaria: James Mather




(1 ARETOAN)
6an: 22.30 (2 aretoan)
7an: 19.45, 22.30
8an: 17.00,
9an: 20.30

"Miel de naranjas"
Zuzendaria: Imanol Uribe




(2 ARETOAN)
7an: 17.00, 19.45, 22.30
8an: 17.00, 20.00
9an: 20.30

"Tengo ganas de ti"
Zuzendaria: Fernando Glez.



(ANTZOKIAN)
6an: 22.30
7an: 17.00, 19.45, 22.30
8an: 17.00, 20.00
9an: 20.30

"The Amazing Spider-Man"
Zuzendaria: Mark Webb



horoskopoa

ARIES

Kostatu zitzaizun Sanjuanetako ajea kentzea, baina ez pentsa libratu zarenik, Amaña eta San Kristobalگو jaiak ate joka ditugu-eta.

TAURUS

Epeak errespetatzen badituzu, lasaiaگو hartuko dituzu gauzak. Bestela, korrika eta presaka ibiliko zara, horrek dakarrenarekin.

GEMINI

Zenbat alditan esan behar zaizu eguzkia hartzen duzunean krema eman behar duzula? Ondorioak latzak izan daitezke eman ezean.

CANCER

Orain zuk nahi beste kirol egiteko aukera izango duzu. Hala ere, kontuz beroarekin, ur asko edan eta indarrak neurtu. Badaezpada ere.

LEO

Begiratu ezazu ondo alde guztietara, ezin izango zarelaگو inorekin fidatu. Zure inguruan dagoen traidorea zein den ohartuko zara, azken batean.

VIRGO

Uda ez duzu modurik onenean hasi, baina egoera hobetzen joango da asteak aurrera joan ahala. Aldaketa igarriko duzu asteburutik aurrera.

LIBRA

Txinpartak aterako dira pertsona horrekin elkartzen zarenean. Bai, zuk ongi dakizun pertsona horrekin. Ea ez den sutea sortzen. Auskalo!

SCORPIUS

Beroaren kontua izango da agian, baina zure burua lasaituko da datozen egunotan: gauzak trankilago hartuko dituzu eta ez zara estutuko.

SAGITTARIUS

Sanferminak direla eta ez direla, adarren kontua ezin izango duzu burutik kendu. Lasai: egunkaria hartu eta ipini zezenaren aurrean.

CAPRICORNIUS

Europako foball txapelketa, Frantziako Tourra, Joko Olinpikoak... hori da kirola egitea egongelako sofatik altxatu barik, ezta?

AQUARIUS

Porrotak, askotan, garaipen handienak izaten dira, horietan asko ikasten baita. Beraz, ez zaitetz tristetu porrota ailegatzen denean.

PISCIS

Alperrontzi halakoa, ez duzu atzamarrik mugituko ezer egiteko? Ez zaizu ezer kostatzen laguntzea eta berak asko eskertuko dizu.

Barixakua 6**AMAÑAKO JAIK**

19.00.- Txupinazoa, Armeria Eskolako Jose Luis Novoa eta Jose Mari Ulaziaren eskutik.
19.00.- Kalejira, Tolosako Oria txarangarekin.
19.45.- Herri kirolak. Harrijasotzaileak: Goenatxo II. eta III.aren (aita-emeak) arteko desafioa. Aizkolariak: Araitz eta Ugatz Mugertza anaien arteko desafioa.
20.30.- Elektrotxaranga.
21.00.- Entziero txikia.
23.45.- Kontzertua, Willis Drummond, Esne Beltza eta Zea Mays taldeekin. Amañan.

ANTZERKIA

22.30.- "Republicados", Teatro Interior taldearen eskutik. San Andres elizako klaustroan.

Zapatua 7**AMAÑAKO JAIK**

11.15.- Pelota partiduak, Amañako dorreetako frontoian.
14.30.- Herri-bazkaria (paella, ura, ardoa, freskagarriak eta postrea, 5 euro). Alberto Arias Soriak girotutako karaokea.
16.30etatik 19.30etara.- Umeendako parkea: gaztela puzgarria, zezen mekanikoa eta espumaren jaia, Kukulak taldearekin.
18.00.- Amaña-Urko-Amaña herri-krosaren irteera.
20.00.- "Irulitxa kaleko emanaldia" kale-antzerkia eta ikuskizuna, Ermuko Irulitxa txarangarekin.
20.00.- Merienda, tozineta pintxoekin (2x1).
21.15.- Entziero txikia.
23.00.- Helduen danborrada, Ermuko Irulitxa txarangarekin. Danborrada Artetxa tabernaren parean geldituko da su artifizialekin hasteko.
23.50.- Su artifizialak, Pirotecnica Zaragozanarekin.
00.00.- Danborradak jarraituko du Amañako plazaraino.
00.45.- Berbena, Luhartz taldearekin. Amañan.

SAN KRISTOBALGO JAIK

16.00.- Tute txapelketa.

Domeka 8**AMAÑAKO JAIK**

11.00.- Auzoan hildakoen eta eibartar guztien aldeko meza, Amañako parrokiari.
12.00.- Salda eta txorizoa bildutako guztientzat, Amañako plazan, Jaione Egia eta Miren Gisasola trikitilariak girotuta.
12.30.- Umeen danborrada, dorreetatik Amañako plazaraino, Ermuko Irulitxa txarangak lagunduta. Amaieran, ogitartekoak eta freskagarriak izango dira parte-hartzaile guztientzat.
13.30.- Lorontzi lehiaketa, sari askorekin, Amañako plazan.
17.00.- Umeendako jokoak, sorpresa eta opari mordoarekin.
18.30.- Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoen "Konfetti" ikuskizuna.
19.45.- Umeendako txokolata-jana, gailatekin.
19.45.- Txorizo ogitartekoak eta edariak.
20.00.- Kallejonada, Elegancia Mexicana mariatxiarekin. Jarraian, kontzertua Amañako plazan. Amañan.

HILDAKOAK

- Teresa Hernández Elizondo. 80 urte. 2012-VI-14.
- Merche Prieto Rodríguez. 44 urte. 2012-VI-17.
- Evaristo Coterón Noriega. 72 urte. 2012-VI-19.
- M^a Cruz Díez Lara. 85 urte. 2012-VI-20.
- Jose M^a Sololuzte Paguegi. 74 urte. 2012-VI-22.
- Jose Ramon Llarrea Cano. 70 urte. 2012-VI-23.
- Gude Nieto Carrión. 80 urte. 2012-VI-23.
- Juan Carlos Suinaga Espin. 64 urte. 2012-VI-23.
- Gregoria San Vicente Urbina. 96 urte. 2012-VI-23.
- Felix Salaberria Urkiola. 80 urte. 2012-VI-24.
- Julia Teruelo Teruelo. 81 urte. 2012-VI-25.
- Sabina Larrinaga Lejardi. 89 urte. 2012-VI-26.
- Santos Elkoroiribe Osoro. 86 urte. 2012-VI-26.
- Cecilio López Alonso. 77 urte. 2012-VI-26.
- Jose Luis Irigoien Sarasketa. 73 urte. 2012-VI-27.
- Piedad Sáinz de la Maza Loroño. 87 urte. 2012-VI-28.
- M^a Pilar Fernández Redondo. 83 urte. 2012-VI-28.
- Miguel García Pascual. 90 urte. 2012-VI-29.
- Eugenio Olariaga Gallastegi. 92 urte. 2012-VI-29.
- Jesus Astigarraga Astigarraga. 75 urte. 2012-VII-1.
- Magdalena González Bilbao. 83 urte. 2012-VII-1.
- Esteban Mujika Egaña. 54 urte. 2012-VII-2.
- Domingo Rodríguez Tortajada. 74 urte. 2012-VII-3.
- Brigida Amutxastegi Aristondo. 82 urte. 2012-VII-3.
- Alicia García Delgado. 81 urte. 2012-VII-4.

Martitzena 10**AURKEZPENA**

19.00.- "La espiga cortada y el trigo limpio", Cándido Ruiz González-en liburu aurkezpena. Portalean.

Eguena 12**TOPAKETA**

11.00.- "Hablando sobre valores, progreso, sostenibilidad...". Hizlariak: Antonio Cancelo (Eroski eta Mondragon Korporazioaren sortzailea), Eduardo Zubiaurre (Adegi-ko presidente-ohia) eta Juan José Ibarretxe (Lehendakaria 1999-2009). Moderatzailea: Juan Carlos Cubeiro. Armeria Eskolan.

JAIOTAKOAK

- Mikel Ortega Vega. 2012-VI-18.
- Jon Unanue Larrañaga. 2012-VI-18.
- Elena Gascón Morro. 2012-VI-20.
- Hodei Sáez Arias. 2012-VI-20.
- Unai Valdés Valdés. 2012-VI-21.
- María Prieto Luque. 2012-VI-21.
- Salma Sarrakh. 2012-VI-21.
- Rayan Ben Lahbib. 2012-VI-22.
- Luken García García. 2012-VI-24.
- Ilaia Díaz Buezas. 2012-VI-25.
- Jon Justel Cabezon. 2012-VI-28.

Ordinaria	Larunbata	Iardea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

– Uztailaren 7ra arte

ARTURO ANDRADE eta **J. LUIS RODRIGUEZ** artisten lanen erakusketa. *El Corte Inglés-ean.*

– Uztailaren 13ra arte

LAMBRETTA motorren erakusketa. *Eibarko dendetan.*

– Uztailaren 15era arte

FERNANDO BEORLEGIk egindako koadroen kopia erakusketa. *San Kristobalgot tabernetan.*

– Uztailaren 31ra arte

JOSE LUIS IRIGOIENen "Baltiko" argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*

ANTONIO LOPEZen argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

AULA 7 TALDEAren argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*

lehiaketak

Asier Errasti XIII. Laburmetraia Jaialdia

Lanak aurkeztea eta informazioa: *Urriak 5era arte*, www.planocorto.es, www.eibar.net, cultura@eibar.net edo 943708435 telefono zerbakian.

Indalezio Ojanguren XXV. Argazki Lehiaketa

Lanak aurkeztea: *Urriak 10era arte*, Portalean.

ikastaroak

Lehen Sorospen eta Sorosle Ikastaroa

Noiz eta non: *Uztailaren 11tik 24ra*, 10.00etatik 13.00etara, DYAk ordezkaritzan (Pagaegi, 5). Informazioa eta izen-ematea: 943464622 telefono zerbakian.

Titulazio ofiziala lortzeko begirale ikastaroa

Izen-ematea eta informazioa: *Irailaren 11ra arte*, www.urtxintxa.org webgunean edo 943270033.

telefono jakingarriak

SOS delak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

farmaziak

6, barixakua

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

7, zapatua

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

8, domeka

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)

9, astelehena

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

10, martitzena

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

11, eguaztena

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

12, eguena

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

13, barixakua

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

SUDOKUA

			4	6	9			
		5				8		
4	1						9	7
1			8					
	2	8		9		5	6	
					3			8
2	6						5	9
		7				1		
			3	4	2			

DENBORAPASAK

2	1	6	7	3	4	9	8	5
3	7	8	2	5	9	6	4	1
9	4	5	0	1	0	3	2	7
6	3	7	1	9	2	8	5	4
4	8	1	3	7	5	2	0	6
5	9	2	8	4	6	1	7	3
7	5	3	0	2	1	4	6	8
1	6	9	4	8	7	5	3	2
0	2	4	5	6	3	7	1	9

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai Eibarko erdialdean. 130 m². 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun eta trasteroa. Igogailua. Guztiz berriztua eta argitsua. Tel. 626-203838.
- Ubixta kalean pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Sartzeko moduan. Igogailua eta gas naturala. 90.000 euro. Goizez deitu. Tel. 659-088244.
- Babes ofizialeko pisua salgai Amañan. Tel. 636-458967 eta 650-497992. Rikardo.
- Pisia salgai Errekatxu 6an. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta 7 m²ko terraza. Kalefakzioa. Eguzkitsua. Berriztua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-521455.

1.2. Errentan

- Pisia alokagai Saturraranen, uztailea, abuztua eta irailerako. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta terraza ederra. Igerilekua eta frontoia. Tel. 676-430299.
- Gelak alokagai Eibarko erdialdean irakasle eta profesionalentzat. Sukaldea eta bainugelarekin. Argitsuak eta handiak, klase partikularrak emateko egokiak. Prezio onean. Tel. 670-793312.
- Cadizen apartamentua alokagai uztailean eta irailean, Sancti Petrin. 2 logela. Igerilekua. Padela. Tel. 644-546993.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 669-966611.
- Pisia alokagai Debako alamedan uztailea eta abuzturako. Berriztua. Prezio onean. Deitu 12.00etatik 17.00etara. Tel. 943-701394.
- Pisia alokagai Errekatxu 6an. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta 7 m²ko terraza. Kalefakzioa. Eguzkitsua. Berriztua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-521455.
- Pisia alokagai Deban, Guipuzcoano Plazan. 2 logela, egongela handia (sofa-oharekin), 2 komun, terraza eta garajea. Igogailua. Guztiz berriztua. Uztailea eta abuzturako -edo urte osorako-. Tel. 619-237449. Conchi.
- Pisia hartuko nuke alokairuan ahalik eta bizkorren Eibarren. Urgentea. Tel. 646-662911.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Txomon garajea alokagai. Tel. 617-688311. Maria.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta kamarera jarduteko. Tel. 659-101631.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, nagusiak zaintzeko, etb. Tel. 618-298636.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta dendari jarduteko. Tel. 636-419814.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko (gauetz zein egunez). Tel. 628-529252.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 686-052084.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 692-332871.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 608-376387.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta ilea-paintzaile jarduteko. Tel. 663-430810.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 943-200939 eta 696-496427.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- LHko gradua egiten diharduen neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko uztailearen 15era arte. Goiz edo arratsalde. Tel. 625-389427.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 625-814727.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo andrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Goizez deitu. Tel. 943-201979.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-578228.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Erreferentziak. Tel. 639-606550.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-887814.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-567680.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 689-436454.
- Mutila eskaintzen da gauetz nagusiak zaintzeko. Tel. 648-143804.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 669-525631.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 652-779800.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-238955.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta edozein lan egiteko. Tel. 616-218076.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 638-515953.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 648-603029.
- Neska eskaintzen da kamarera edo jantokian jarduteko. 10 urteko esperientzia. Tel. 648-100546.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita udaran ere. Tel. 698-632922.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 645-366850.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 669-966611.
- Batxilergoa egindako neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 622-824468.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 669-311385.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-423493.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. Tel. 677-860971.

4.2. Langile bila

- Ofiziala behar da El Corte Inglés-ko ileapaindegirako. Curriculum-a bertara eraman edo deitu. Tel. 615-188691.
- Eibarko ileapaindegi batean ilea-paintzaileak behar dira: 1. ofiziala eta 2. ofiziala. Tel. 637-528992.
- Sukaldaria eta garbitzaileak behar dira laster zabalduko den zentroan. Bidali curriculum-a eta argazkia: Eibarko 403 posta-kutxatila.
- Fisioterapeuta eta kiromasajista behar dira Eibarko ileapaindegi batean. Lan-giro bikaina. Tel. 678-674250.
- Sukaldaria behar da jateke batean. Esperientziarekin. Tel. 654-958684.

- Emakume euskalduna behar da umea zaintzeko. 4 ordu. Tel. 678-386033.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Irakaslea behar da akademia batean. LHtik Batxilergo mailaraino. Curriculum-a bidali: akademialana@gmail.com. Tel. 696-295098.

5.2. Eskaintzak

- Uztailean DBHko eta Batxilergoko Matematikak, Ingelesa eta Euskara errepasatzen eta prestatzen lagunduko nuke. Tel. 685-739709.
- Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo atsegina. Adin guztiak. Tel. 647-275374.
- Magisterizan diplomatuak LH eta DBHko klase partikularrak ematen ditut. Tel. 651-503971.
- Euskara klaseak ematen ditut: azterketen prestaketa, EGA, Haberen mailak... Tel. 620-608065.
- Batxilergoa egindako neska eskaintzen da partikularrak emateko. Tel. 622-824468.
- Ordenagailua erabiltzen irakasten dut: internet, korreoa, web orriaren diseinua. Merke. Tel. 679-740061.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Thule markako autorako kajoia salgai, eusteko barrak barne. Prezio onean. Tel. 687-044379. Olatz.
- Erreproduzitzeko Fonestar-mahai bikoitza salgai. Taberna eta pub-etarako aproposa. Bozgorailu eta argiekin. Tel. 648-100546.
- Haririk gabeko inalanbrikoa (Panasonic markakoa, 20 euro) eta MP4 (erabili gabe, 25 euro) salgai. Tel. 943-120030.

6.2. Eman

- Sukaldeko mahaia eta aulkiak behar ditut eta umeen gelarako bi ohekabi. Tel. 609-918803.
- Baserrian jaiotako katakumeak oparitzen dira. Tel. 646-601923.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Hilaren 3an Urkizu parke inguruan giltz-sorta galdu nuen. Tel. 649-344932.

6.4. Bestelakoak

- Ikasten-ek bulegorako erdi tamainako artibategia behar du. Tel. 626-773676.
- Egutero Eibartik Gasteizera lanera joateko autoa konpartituko nuke. Gasteizen 07.45etan sartu eta handik 14.45etan irtezeko. Tel. 657-779650.

MUNDUKO JAIRIK ONENAK



AMAÑAN DOZUZ ASTEBURUAN

Lanerako gertu!

2012
2013

OK

» Oñati gestio
heziketa

MGEP

MONDRAKIN GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Matrikula

Uztailak 5etik aurrera

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none"> • Administrazio eta Finantzak • Zuzendaritza Itaskaritza • Salmenta Kudeaketa 	<ul style="list-style-type: none"> • Sistema Elektroteknikak eta Automatizazioak • Automatizazio eta Robotika Industriala • Sareko Informatika Sistemak Administrazioa • Fabrikazio Mekanikako Diseinua • Fabrikazio Mekanikako Produktzioaren Programazioa • Mekatronika Industriala
<p>www.mondragon.edu/egh info.enpresagintza@mondragon.edu 943 71 80 09</p>	<p>www.mondragon.edu/gmhz gmhz.regop@mondragon.edu 943 71 21 91</p>





bista eder

clinica dental - hortz klinika



**Irribarreak
gaztetu egiten gaitu**

**Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak**

**Bista Eder Hortz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75**